

**ctb**

bizkaiko garraio partzuergoa
consorcio de transportes de bizkaia

PRENTSA-OHARRA

Bi aste eskasetan, 200.000 erabiltzailek baino gehiagok luzatu dute Barik txartelaren iraungitze-data

- **Dagoeneko erabiltzen ari diren txartelen baliozkotasun-epea 4 urtetik 7 urtera luza daiteke, erabiltzaileentzako kosturik gabe. Aldaketa hori Metro Bilbaoko geltokietan egin daiteke, txartelak saltzeko eta kargatzeko makina automatikoetan; eta, abuztuaren 4tik (asteartetik) aurrera, sareko beste 550 puntutan ere aldatu ahal izango da (Bizkaibuseko eta Bilbobuseko kabinetan, kioskoetan eta merkataritza lokaletan).**

Bilbo, 2015eko uztailaren 30a.

Bi aste eskasetan 200.000 Barik txartel baino gehiagoren iraungitze-data luzatu da 3 urtez. Bizkaiko Garraio Partzuergoak (BGP) uztailaren 13an aktibatu zuen Barik txartel guztien (anonimoak zein pertsonalizatuak) baliozkotasun-epea 4 urtetik 7 urtera aldatzeko aukera, Metro Bilbaoko geltokietan. Abuztuaren 4tik, asteartetik, aurrera Bizkaiko garraio-sarearen beste 550 puntutan ere luzatu ahal izango da iraungitze-data (Bizkaibus eta Bilbobuseko kabinetan, estankoetan, kioskoetan, eta sistemari atxiki zaien merkataritza lokaletan).

Txartelen iraungitze-data luzatzeko, erabiltzaileek Metro Bilbaoko geltoki batera joan behar dute, Barik-a iraungi baino lehen. Txartelak saltzeko eta kargatzeko makinetan barik sartu eta automatikoki txartelaren baliozkotasun-epea luzatuko da, erabiltzaileentzako kosturik gabe.

Neurri horren bidez, lehenengo txartelak, datorren irailetik aurrera iraungitzekoak zirenak, baliozkoak izango dira 2018ko irailera arte, behin erabiltzaileak bere Barik txartela eguneratu eta gero, betiere iraungitze-epea heldu baino lehen.

Txartel pertsonalizatuetan bertan dago idatzita iraungitze-data. Beste mota batzuetako txartelen iraungitze-data ikusteko, ordea, txartelak kargatzeko edozein puntutan (Metroko makinak, Euskotren, tranbia, Renfe, kutxazainak...) eta erosketen ordainagiritan ere kontsulta daiteke.

Nolanahi ere, BGPren webgunean (www.ctb.eus) atal berezi bat jarri da Barik txartel guztien iraungitze-data kontsultatu ahal izateko. Horretarako, "Barik iraungitze-data kontsultatu" atalean txartelaren atzealdeko zenbakia idatzi baino ez da egin behar.

Zenbait azterketa tekniko egin ziren, eta txartelaren barruko txipak lau urteren ostean ezin hobeto funtzionatzen zuela egiaztatu zen; hain zuzen ere, merkaturatu zenean aitzindaria zen txipa, eta inguruko operadoreek erabiltzen zutenaren aldean berritzailea.



ctb

bizkaiko garraio partzuergoa
consorcio de transportes de bizkaia

Hala, Partzuergoak Barik txartelen iraungitze-data beste hiru urtez luzatzeko erabakia hartu zuen; hau da, 4 urtetik 7 urtera luzatu zuen iraungitze-data hori.